

## Ikastolaren eguneko egitaraua

10:00: LH1-2-3 jolasak Ikastolan.

11:00-12:00: DBHko ikasleek Plastikan, Teknologian eta STEM-en egindako proiektuak ikusgai egongo dira Eraikin Gorrian.

11:00-12:00 bitarte ikusteko aukera izango da eta ikasleak beren lanak aurkezten arituko dira.

11:00: LH4-5-6 jolasak Ikastolan.

12:15: DBH jolasak Ikastolan.

13:00: HHko dantza emanaldia (Mikel Laboa Plazan eta, txarra egingo balu, Ikastolako frontoian).

14:00: Bazkaria frontoian.

12:00etatik aurrera guraso arduradun batzuk frontoi sarreran egongo dira frontoi eta dema plazaren plano batekin. Familiak taldeka, banaka, binaka, nahi duzuen bezala zuen tiketarekin gerturatu eta beraiek erakutsiko dizuete eserlekua. Aurten ere guztiok elkarrekin bazkalduko dugu, haur eta heldu. LH 1. mailatik aurrera, ikasleak taldean lagunekin esertzeko aukera izango dute, heldurik gabe. Txartela erosterakoan adierazi behar da nahia. Naiz eta ikasleak taldean eseri, gurasoen ardurapean egongo dira.

Jarraian: DBHko ikasleen musika emanaldia.

Ekainaren 7tik 14ra: Haur eskolako argazki erakusketa Sutegin.

## Ikastolaren egunerako ekintzak

**Ekainaren 7an**, Hitz-Aho guraso elkarteak antolatuta, 17:00etatik aurrera txokolate-jana eta 18:00etatik aurrera DJ Mendi izango dira Askatasuna Plazan.

Guraso elkarte



## DBH 1eko ikasleen zozketa

Kaixo, gu DBH 1eko ikasleak gara. Ikastolaren egunean (ekainaren 8an) zozketa antolatu dugu gure baratzeko produktuak zozketatzeko, produktu horiek ehuneko ehun naturalak dira eta mimo haundiz ereindakoak, interesatzen baldin bazaizu, erosi txartela eta azaldu zaitez ikastola eguneko bazkari ondorengo zozketara! Zozketa herriko frontoian izango da, animatu! Saskia jasotzeko azken eguna ekainaren 10a izango da, eta boletoak euro 1ean salduko ditugu.



## Badatoz Santixelak!

Aurten ere **uztailaren 1ean** GINKANA (LH1-4 bitarteko ikasleak) eta ERRONKA (LH5-DBH2 arteko ikasleak) mundialak antolatzeko asmoa dugu ikasleentzat. Horretarako, jakina, ezinbestekoa da zuen partaidetza. Gure antolakuntza errazte aldera eskertuko genuke izena ematea bi bide hauetakoren baten bidez:

-Zuen ikastetxean duzuen izen-emate orrian izena eta ikasmaila adieraziz.

-Korreo bidez [santixelak.umeen.eguna@gmail.com](mailto:santixelak.umeen.eguna@gmail.com)

**Izena emateko azken eguna ekainaren 19a izango da.**

Erronkan parte hartuko dutenek aldatzeko arropa eramane beharko dute.



Usurbilgo Udala

## AISIALDIRAKO eskaintza 2024-25

Ziromolan 2024-25 ikasturterako prestatu den [eskaintza](#) bidaltzen da: egonaldiak, formakuntzak, Aisiola, eta abar.

Egitasmoetan izena emateko [esteka honetan](#) topatuko duzuen galdetegia bete behar duzue, eta horretarako **azken eguna ekainaren 28a** izango da.



# HAUR-HEZKUNTZA

## Ikastola-eguna

Dakizuen bezala, **bihar** Ikastolaren eguna ospatuko dugu. Eguerdiko 13:00etan HHkook gure **emanaldia eskainiko dugu Mikel Laboa plazan** (eguraldi txarra egingo balu, Ikastolako frontoian egingo genuke gure emanaldia eta haurrak gure geletan bertan jasoko genituzke). **Haurrak 12:45ean jasoko ditugu** herriko gune hauetan:

- o HH 3koak: Mikel Laboa plazan, inmobiliaria ondoan.
- o HH 4koak: Laboral kutxaaren ondoan.
- o HH 5koak: Kutxabanken ondoan.

Egun horretan **haurrak honela jantzita** ekarri behar dituzue:

- o HH 3koak: goiko txuria eta baserritar zapi laukiduna.
- o HH 4koak: kolore batez jantzita: grisez, marroiz, txuriz edo beltzez
- o HH 5ekoak: kamiseta tiradun txuria, alkondara laukiduna eta galtza ilunak.

Zalantzarik baduzue, tutoreei galdetu.



## HH 5eko familiei zuzendutako oharra

**Ekainaren 18an**, asteartea, arratsaldeko **17:00etan**, Agerialde eraikineko 2. solairuan, **2024 – 2025 ikasturtean LH1. mailan hasiko diren hauren familientzako** informazio bilera egingo da.



# LEHEN HEZKUNTZA

## Ikastola eguneko jolasak

Dakizuen bezala, larunbatean, hilak 8, ikastola eguna ospatuko dugu. Goizean zehar ikasleen jolasak izango ditugu. Ikasleek ikastolako sarrera nagusira (errepide aldera) agertu beharko dute ondorengo orduan:

**1, 2 eta 3. mailako ikasleak 9:45ean sarrera nagusian.**

**4, 5 eta 6. mailako ikasleak 11:00etan sarrera nagusian.**

1, 2 eta 3. mailako ikasleak amaitzean, **11:00etan kiroldegi aurrean** jasoko dituzue.

Bestetik, egokitu zaien zenbakiaren arabera, koloredun kamisetarekin etortzera gonbidatzen ditugu:

**1 zenbakia** edo taldea: **kamiseta beltza.**

**2 zenbakia** edo taldea: **kamiseta txuria.**

**3 zenbakia** edo taldea: **kamiseta urdina.**

**4 zenbakia** edo taldea: **kamiseta berdea.**



## Irteeren kobrantza

- **LH1: Ekainaren 10ean**, Oriora egindako irteeraren kobrantza egingo da. Denera **8,50 €** izango da.
- **LH5: Ekainaren 10ean**, Arritxuloko irteeraren 3. zatiaren kobrantza egingo da. Denera **25,60 €** izango da.
  - Autobusa: 15,70 €
  - Egonaldia: 61,00 €
  - Aurrerakinak: 51,20 €



## LH 4ko familiei zuzenduta: LIBURUTRUK 2024/2025

ZER DA LIBURUTRUK?

Sistema honen helbururik nagusia testu-liburuak ahal den ikasturte gehienetan berrerabiltzea da. Hitz Aho Guraso Elkarte eta Ikastolaren artean koordinatuz egiten da. Ikastola liburuak eskatu, familiei kobratu eta ekaineko azken egunean liburuak jasotzeaz arduratzen da. Bestetik, Hitz Aho Guraso Elkarte liburuak sailkatzeaz arduratzen da. Sistema hau erabiltzeko arrazoiak:

Guraso elkarte



1- Seme-alaben heziketa hobetzea: zenbait balore garatzen lagunduko diegu; besteekiko elkartasuna, guztien gauzak zaintzeko joera, komunitatearekiko lotura, kontsumo arduratsua eta inguruarekiko errespetua,...

2- Ekonomikoa: parte hartzen duten familiek liburuetan gutxiago gastatuko dute. Berrerabilgarriak diren liburuen zati bat ordaintzen delako.

3- Ekologikoa: liburuak berrerabiltzeak paperaren kontsumoa eta sortutako zaborra gutxitzen du.

Sistema hori LH5. mailatik gorako ikasleentzat da. Beraz, **ikasturte honetan LH4. mailan dagoen norbaitek ez balu parte hartu nahi, [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera mezua idatzi beharko luke. Horretarako epea GAUR amaitzen da. Gainontzeko mailetakoen kasuan, mezua aldaketarik balego soilik idatziko lukete.**

**Gogoratu, behin Liburutruken sartuz gero ezingo dela irten, bestela, ordura arte baliatutako hobarien itzulketara egin beharko litzaioke ikastolari.**

Antolaketa horren baitan, hurrengo ikasturteen amaieran, liburuak Ikastolan utzi beharko dituzue eta hurrengo ikasturteetako liburuak eskuratzeaz Ikastola eta HITZ-AHO arduratuko dira. **Berrerabilgarriak diren liburu GUZTIAK egoera onean itzuli behar direla gogorazten da, bestela, falta diren liburuak kobratu egingo dira.**

**Ekainaren 14rako** parte hartuko ez duela adierazten ez duen familia guztiei, **60 €ko fidantza** kobratuko zaie ekainaren 16an eta gerora ez zaie bueltatuko, ez duela parte hartu nahi esaten badu ere.

## Zorriak LH3

LH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

**Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

**NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA**



## Sexu-heziketa

LH 5eko eta LH 6ko ikasleek jaso duten Sexu-heziketako ikastaroa dela eta, LH5 eta LH6ko gurasoei saio bat eskainiko zaizue gai horren inguruan ikasleekin jorratu dena azaltzeko. Bertan, guraso bezala dituzuen kezkak aditu bati azaldu edota galdetzeko aukera ere izango duzue.



**Data:** Ekainak 13, osteguna

**Ordua:** 17:00. Aurreko buletinean 16:00 izango zela jartzen zuen, baina aldatu egin behar izan dugu.

**Lekua:** Agerialdeko 2. solairuan

Etortzeko asmoa izango bazenute, eman **gaur** izena:

<https://forms.gle/5YmVLYXRt1rrQ8K38>

## Arropa galdua

Agerialdeko sarreran dagoen arropa galduen txokoa beteta dago eta hiruhileko azkeneko astean, bertan dagoen arropa Caritaseko edukiontzira eramango da.



# DBH

## DBH 4ko ikasleei zuzendutako informazioa

DBH4. maila bukatzen duten ikasleek Chromebooka erosteko aukera izango dute 30€ gehiagoren truke. Hala egin nahi ez duenak, ikastolan itzul dezake eta hasieran jarritako fidantza bueltatuko zaio. Itzuli ahal izateko, gogoratu, hitzarmenean sinaturikoa, hau da, gailuak egoera onean egon behar duela; ez da pegatinarik, markarik,... onartuko; pantailak, teklatuak, bisagrek,... egoera onean egon behar dute. Ikastolan itzultzea erabakitzen baduzue, **ekainaren 18an dena gainditu dutenek eta ohikoetara doazenek ekainaren 20an, IKT departamenduan erakutsi beharko dute gailua eta kargadore horien egoera egiaztatzeko.**



**Mesedez, [galdetegia](#) bete ekainaren 14a baino lehen zer egin behar duzuen jakiteko.**



## DBH 2ko gurasoei zuzendutako oharra

**Gaur**, ekainak 7, **arratsaldeko 17:00etan Potxoenean**, Jon Etxaberekin lantzen ari den harremanen inguruko lanari jarraipena emateko saioa egingo da.

Gogoratu, ezinbestekoa dela zuen seme edo alabarekin elkarriketa serio bat mantentzea gaiaren inguruan, gauzak gerora jakiten badituzue mingarriagoa izan daiteke-eta.



## Bizkarsoro filma

DBH 3koek eta DBH 4koek **hurrengo ostiralean**, hilak 14, **BIZKARSORO** filma ikusi eta ondorengo lanketa egingo dute UEMArek eskutik. Ikustaldia Sutegi aretoan izango da 10: 50ean.



## LIBURUTRUK 2024/2025 antolaketa

Datorren ikasturteko liburuen antolaketa egokia egiteko, **gela bakoitzeko 3 bolondres** beharko ditugu. Mesedez, idatzi [hitzaho@udarregi.eus](mailto:hitzaho@udarregi.eus) helbidera ekainaren 14a baino lehen izena emateko. Lehenengo bilera, ekainaren 27an, 15:00etan, egingo dugu ikastolako eraikin gorrian. **Bolondres nahikorik ez balitz egongo, zozketa egingo da.**

Guraso elkartea



## HABEren dirulaguntza berezia 16-18 urteko gazteentzat

Joan den urtean HABEk dirulaguntza lerro berezia sortu zuen 16-18 urte bitarteko gazteek B2 edo C1 maila eskura zezaten. Hari esker, adin horretako herritarrek, ikasleak izan edo ez, 20 euroren truke ikasturte osoa egin ahal izan zuten; eskatu zen baldintza bakarra asistentziaren %75 betetzea izan zen. Datorren ikasturteari begira ere, HABEk laguntza berarekin jarraituko duela aurreikusi du, beraz, interesa baduzue edo informazio zabalagoa nahi baduzue, deitu edo idatzi Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegira (607609379 edo [usurbil@aek.eus](mailto:usurbil@aek.eus)).

